

BIDEO MODALITATEAREN OINARRIAK

Nork har dezake parte?

- EAEko edozein ikastetxeko Batxilergoko edo DBHko bigarren zikloko ikasleek (ikastetxeko bakoitzeko gehienez 10 bideo).
- Parte hartzea **banaka edo lagunartekoa izan daiteke (gehienez 3 pertsonako taldeak).**
- **Partaide edo talde bakoitzak bakarrik bideo bat aurkeztu dezake.**

Zertan datza modalitate hau?

- Bideoak **idea filosofikoak garatuko ditu**, beraz, izaera kontzeptuala eta gogoetatsua izango du, baina narrazioa-generoak ezberdinak izan ahal dira: fikzioa, animazioa, dokumentala, dokumental faltsua, etab.
- Edizio honetako gaia jorratuko du: **EROMENA**
- Lanen iraupena: **1-4 minutu arteko iraupena** izan beharko dute eta formatu digitalean eginda egon beharko dira. Edozein teknika edota irudien prozesaketa erabili ahal da.
- Lanak **euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez** egin ahal dira.
- Lanak, originalak eta inon saritu gabekoak izan beharko dute. Dagoeneko existitzen diren irudiak erabili ahal dira, baina muntaia originala izan behar da.
- Parte-hartzaileen erantzukizuna da hirugarrenen eskubiderik ez izatea aurkeztutako lanen gainean, eta irudi eskubideengatik egon daitekeen edozein erreklamazio haien ardura izango da.
- Era berean, **adimen artifizialaren** erabilaren zantzurik somatuz gero, lana deskalifikatuko da.
- **Bideoetan agertzen diren pertsonen baimen bat sinatu behar dute**, eta hori bideoarekin batera bidali behar da. Bideoan adin gutxiakoak agertzen badira baimena umearen gurasoek edo tutore legalak sinatu beharko dute.
- Bideoak Creative Commons litzentziapean bidaliko dira.
- Ez dira beste lehiaketa batzuetan irabazle suertatu diren bideoak sarituko.

Lanaren bidalketa

- Lana bidaltzeko epea **2026ko urtarrilaren 23an**, ostiralean, amaituko da.
- **Irakasleek haien ikastetxeko lanak formulario baten bitartez bidali beharko dute.**
- **Artxiboaren izena partaideen NANA eta korreoaren gaia hurrengoa izan beharko da: NAN zenbakiak eta segidan "bideoa" hitza.**
- Aurkeztutako lanen erabilera, erreproduzio, erakusketa edo hedapen eskubide guztiak Euskadiko Filosofia Olinpiadarenak izango dira; betiere lanaren egilea aipatuko delarik.
- **Finalistek haien lana aurkeztu eta defendatu beharko dute Sari Banaketan**, horretarako 3 minutu izango dituzte haien bideoa azaltzeko eta gero epaimahaiaren galderei erantzungo diete.
- Espainiako Olinpiadan (OFE) parte hartuko dutenek REFar baimena ematen diote haien lan finalistak argitaratzeko, eta finalaren ondorengo hilabete bateko epean haien lanak eskaneatzeko eta formatu digital batera pasatzeko konpromisua hartzen dute. Baldintza hau betetzen ez dutenak OFEko testuen edizioaren kanpo geratuko dira.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.

Nola baloratuko da lana?			
Kalitatea eta konplexutasun teknikoa: soinua, irudia, egikera eta muntaia. 2 puntu	Gidoia 2,5 puntu	Aberastasun kontzeptuala 3 puntu	Originaltasuna 2,5 puntu
	• Gaiarekin lotutako ideiak aurkezten dira. • Proposatutako hausnarketa zehatza eta argia da. • Tesia aurkezten da edo galdera bat planteatzen da.	• Emozioak eta hausnarketak eragiteko gaitasuna. • Aberastasun sinboliko eta ikonografikoa.	• Ez da beste pertsona edo proposamen baten kopia egiten.

Informazio gehiago hemen:

<http://euskadikofilosofiaolinpiada.mozello.com>

filolinpiadaeuskadi@gmail.com